

Euskal Herriko 7 sagardo munduko 100 onenen artean hautatuak izan dira

 Urr 4, 2018  Sagardoa, Sagardotegiak  0 comments



Euskal Herrian ekoiztutako zazpi sagardo aukeratu ditu Susanna Forbes kazetari eta idazle britaniarrak bere “**The Cider Insider. The essential guide to 100 craft ciders to drink now**” libururako. Liburua, Sagardoaren Lurraldeak antolatutako I. Sagardoaren Kultura eta Turismoaren Topaketaren ospakizunaren testuinguruan aurkeztu zen Astigarragan eta aurkezpenean, liburuan aipatzen diren sagardo batzuk dastatzeko aukera izan zen.

Susanna Forbes, ardoa, garagardoa eta sagardoan berezituriko kazetaria eta idazlea da. Jatorriz, Ingalaterra osoan sagardo usadio handiena duen Herefordshire eskualdekoa da eta Little Pomona izeneko sagardotegia martxan jarri berri du. Baina sagardoarekiko duen grina haratago doa. Ingalaterra, Gales, Britainia, Normadia, Alemania, Italia, Australia, Kanada, Zeelanda Berria, Hegoafrika, Asturias, Galizia eta Euskal Herriko 100 sagardo artisau gomendatzen dituen liburua argitaratu berri du.

Liburuan nabarmentzen diren sagardoaren artean, Euskal Herriko 7 agertzen dira: **Zelaiako Gorenak Sagardoa 2017** (Hernani), **Zapiaingo Euskal Sagardoa Premium 2017** (Astigarraga), **Isastegiko Euskal Sagardoa 2017** (Tolosa), **Gartziategiko Gorenak Sagardoa 2017** (Astigarraga), **Gaztañagako Gorenak Sagardoa 2017** (Andoain), **Bereziartuako Euskal Sagardoa 2017** (Astigarraga) eta **Bordattoko Txalaparta 2016** (Jatsu-Garazi, Nafarroa Beherea).

6 urtetan zehar gauzatu duen ikerketan, Forbes-ek sagardoa ekoizten duten mundu osoko lurralde nagusiak zeharkatu ditu. 2018ko martxoan bere ikerketak Euskal Herrira ekarri zuen eta bertan, Sagardoaren Lurraldeako nazioarteko harremanen arduraduna den **Haritz Rodriguez** kazetariarekin batera, bertako sagardotegi adierazgarrietakoak ezagutu zituen.

Ordurako sagardoaren inguruko erreferentziak bazituen arren, Forbes-ek sagardotegi batzuk bisitatu eta sagardoak dastatzeko aukera izan zuen, euskal sagardoaren kultura barneratuz eta txotx-eko errituaz gozatuz. Bere bisitaren emaitza, aurrez aipatutako Euskal Herriko 7 sagardo nabarmentzeaz gain, Euskal Herriko sagardoaren kultura, ezaugarri eta Astigarragan kokatua dagoen **Sagardoetxea** Sagardoaren Museoren inguruan egiten duen erreferentzia zabala da.

SAGARDOAREN KULTURA ETA TURISMOAREN NAZIOARTEKO SAREA

“The Cider Insider” liburuaren aurkezpena, Astigarragako **Iretza sagardotegian** ospatu zen irailaren 28tik 30era bitartean ospatutako **I. Sagardoaren Kultura eta Turismoaren Topaketaren** ospakizunaren baitan. Topaketa honetan, 10 lurraldetako ordezkariak elkartu ziren: Ingalaterra, Gales, Alemania, Asturias, Galizia, Britainia, Austria, Irlanda, Norvegia eta Euskal Herria. Zorione Etxezarraga **Astigarragako** alkatea, Harkaitz Millan **Basquetor**-eko Zuzendaria eta Maite Cruzado **Gipuzkoako** Foru Aldundiko Zuzendaria ere aurkezpen ekitaldian izan ziren.

Topaketa honetara gerturatutako ordezkariak, sagardoaren kultura eta turismoa munduan sustatzeko nazioarteko sarea martxan jartzea adostu zuten. Hala, datozen hilabeetan marka amankomuna eta sarean parte-hartzen duten norakoen informazioa bilduko duen webgunea martxan jarriko dira, eta proiektua indartzen lagunduko duten europar finantziatorako aukerak aztertuko dira.

Hernaniko Orona Fundazioan gauzatutako lan bilerez gain, nazioarteko ordezkariak **Iretza sagardotegian** ospatu zen afari tematikoaz gozatzeko aukera izan zuten bertako produktuak eta nazioarteko sagardoak dastatzuz, **Euskal Sagardoaren “Egin Zotz!” kanpainan** parte-hartu zuten Astigarragako tabernetan, **Donostia** bisitatu zuten bertako pintxo goxoak Euskal Sagardoaz lagunduta dastatzeko, **Zelaia eta Alorrenea sagardotegiak** bisitatu zituzten eta **Sagardoetxea** eta **Albaola** museoetako bisitaldietan sagardoak XVI. mendean Ternuara egindako itsas bidaietan izan zuen garrantzia ezagutu zituzten. Topaketaren amaiera gisa, irailaren 30ean Astigarragan ospatu zen **Sagar Uzta** jaietan izan ziren.

Bilatzailea

<input type="text"/>	Bilatu
----------------------	--------

Kategoriak

- Agenda
- Argitalpenak
- Azokak
- Berriak
- Ekitaldiak
- Erakusketak
- Esperientziak
- Formazioa
- Gastronomia
- Historia
- Kultura
- Lehiaketak
- Museoak
- Sagardoa
- Sagardotegiak
- Sagarra
- Sagastia
- Turismoa

Artxiboak

Hautatu hilabetea

ZATOZ ETA GOZATU

**SAGARDOAREN
LURRALDEA**

el territorio de la uva

Kale Nagusia, 48

20115

Astigarraga

Gipuzkoa

LAGUNTZA BEHAR DUZU?

📞 943 550 575

JARRAI IEZAGUZU...



Privacidad - Condiciones

ESPERIENTZIAK

Zure plana erreserbatu

Neurrira egindako esperientziak

Hautatutako ibilbideak

Beste proposamenak hemendik gertu

Nola mugitu

Non lo egin

Gidak eta informazio praktikoa

SAGARDOTEGIAK

Sagardotegia erreserbatu

Sagardotegia aukeratu

Garraioa sagardotegietara

Sagardotegiaz gozatzeko gomendioak

SAGARDOETXEA

Sagardoetxea – museoa

Erakusketa eta bisita guneak

Bisita motak

Nola iritsi eta sarbideak

Tarifak eta ordutegiak

Bisita erreserbatu

Bisita birtuala

Dokumentazio Zentroa

SAGARDO FORUM

AGENDA

BLOGA

HEDAPENA

Informazio orokorra

Argazkiak

Hitzaldiak

Boletina

Buletinera harpidetza

Sare sozialak



EUSKADI
BASQUE COUNTRY



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

© 2019 Sagardun Partzuergo publiko-pribatua
LEGEZKO INFORMAZIOA

NOR GARA

PROIEKTUAK

AKORDIOAK

KONTRATATZAILEAREN PROFILA